

ERLIJIO ALA KANIBALISMO?

Erliijoak zer diren, zeharo esplikatzen dituzten "teoriak", asko dira. Halare, misterio asko ezkututzen dituzte oraindik erlijiok, zeharo esplikatzen eta gero ere. Misterio harrigarrienetako bat giza sakrifizioak dira.

Nahiko misterio da abere jenero artean, gizonak nola gizonik hiltzen duen. Ez osoak otsorik hiltzen, gizonak elkar hiltzen duten bezala. Hori ez da obserbazio moralik, biologiko soil da. Gizona, gizon hiltzea ofizio bihurtzeraino, ailegatu da. Gizona, jainkoari giza bizitza sakrifikatzeraino ailegatu da. Askatasunaren edo justiziaren izenean elkar hiltzea korriente da gizonaren historian. Eta konpreni ezinezko fenomeno da, zer meka-

nismo biologiko edo psikologiko den, elkar hiltzera daraman gizonaren hori.

Hain zuzen, erlijioen historiako kapitulurik harrigarri eta bildurgarriena dugu giza sakrifizioa. Eta erlijio ezberdinen artean, aztekek izan ditugun nagusi, dirudenez, giza bizitzak sakrifikatzen.

Etnologoek mito eta teogonia miresgarriak azaldu ohi zizkiguten, kasi poetikoak, azteken giza sakrifizioen esanahia eta arrazoia esplikatzen. Aztekek ikaragarriko bildurrez bizi omen ziren beti, eguzkia bat-batean hil egingo zitzaie (eguzkia jainko zuten). Eta hil ez zedin, odol bero eta berririk izan zezan, gizonak sakrifikatzen omen zizkioten.

Mito guziak desmitologizatzeko egunetan bizi gara. M. Harnerek bestelako teoria bat azaldu digu orain American Ethnologist aldizkarian.

Harnerek dionez, azteken giza sakrifizioetarako arrazoia guziz materialista zen: gosea. Haragi falta.

Baratzekariak, ale eta fruituak baka- rrik ezagutzen zituen azteken sukaldeak. Egaztiren batzu ere bai. Etxe abere haundirik, ordea, ez zuten ezagutzen. Eta, horregatik, albumina falta zitzaien. Bestalde, kronistek adierazia da, Mexikok izugarriko goseteak pasatzen zituela.

Bernal Diazek dioskunez, Hernan Cortesekin joan bait zen hori, 1521 aldera berak ikusia da, aztekek inguruetakoko herrietan jendea preso harrapatzen zutela, gero bapo mantendu, gizona eta jainkoei sakrifikatzen. Hilketa egin, zeremonia haundi batez egiten zen, piramide baten puntan. Odola eta bihotza jainkoei eskaintzen zitzaien (hots, apezak jaten eta edaten zituen). Gorputza piramidetik behera herriari botatzen zitzaion. Herriak, besoak eta izarrek ebaki eta, tomate eta piper saltsatan gozaturik, jan egiten zituen sakrifikatuaren izar besoak. Torsoa Zootegek basapiztietan botatzen zitzaion. Aztekek honela 250 mila inguru hiltzen zituztela urteoro, ateratzen da kontu. Populazio guziari begira, ehuneko 1 inguru sakrifikatzen-jaten zuten urteoro...

Benetan zoragarri da azteken historia, antzinako historia gehien modura (gizonaren espilu zoragarria). Misterioz beteta bait dago (espilu krudela). Hain zuzen, egungo gizonaren misterioz beteta. Azteka, hori bait da kontua: gizona den abere amorratuak, zein ideologiaren bidez praktikatzen ote duen gaur, behinola-ko erlijio eta kanibalismo nahasketa. Piska bat, bere fedea espresatzeko; beste piska bat, bere albumina falta konpentsatzeko soil, Sinestuta bait gaude, lehengo berak dela gaurko gizona. Abere hutsa.●

LAZKANO MENDIZABAL



OIHUTXOAK

ARANTZAZU, PENTSAMENDI

Bai, orainoan, Arantzazu Pentsamendi bilakatu zaigu.

Ikusi berriak ditugun iskanbila haundiak pasa eta gero goazen bakardadera.

Hemen gertakizun garrantzitsuen zai gaudenok, itsumustuka eta burugaldurik joka ez dezagun, goazen arnasa eta argitasuna hartzera.

Gure Herria ondamentitik urrundu eta bere egiazko zorion bidera eramaten ahalegindu behar dugunok, goazen elkarrekin egun batzuetarako pentsaketa sakonetan sartzera.

Guzi hori topatuko dugu aurtengo Aste Santuz Arantzazun.

Astelen, Astearte eta Asteazken Santuz, honako gai hau izanen dugu eskuartean: "EBANJELIOA ETA POLITIKA GAURKO EUSKALHERRIAN". Paulo Agirrebaltzategi eta A. Agirretxe izango ditugu han gure pentsaketen laguntzaile. Bai herri txiki mailan, bai herrialde mailan eta bai Aberri osoaren mailan gaur politikagintzan dabilzan fededun guzientzat argibide zuzen eta jarraigarriak emango ahal dizkigute! Engainukeriaz nahiko asperturik gaudenok horren beharrean bai gaude.

Denboraz urri dabilzan fededunek

Ostegun Santutik Ostiral Santurainok... Gau Bijilia har dezakete Arantzazurako. Gau osoa hauxe izango da: pentsaketa, azterketa, otoitzaldia eta elkarrizketa Gaiak: "EUSKAL HERRIKO GARIZUMA LUZEA" (Agirrebaltzategik) eta "ANAIARTEKO ELIZKERA BERRIA" (Agirretxek). Gau Bijilia hau "kristau herriar komunitateetan" dihardutenentzat izango da batez ere.

Azkenik... Ostegun, Ostiral eta Larunbat Santuz beste pentsaketa saioak egingen dira Arantzazun, kristau federearen argitara gaurko Euskal Herriaren egoera eta kinka biziz aztertu eta kristau jokaez leporatu nahi dutenentzat.

Arantzazuko Pentsamendian jardunaldi horietan partaide izan nahi dutenek hotsegin bezate aurretik bertara, honako urrutizkin honetara deituz: 78 13 15

Gure Herriaren egiazko Askatasuna benetan egin nahi dugunok, Egiaren eta Zuzentasunaren bideak nondik norakoak diren ikusi beharra dadukagu. Edozein haizedurak eraman ez gaitzan.

Aberriaren Eguna baino lehen, Pentsamendi haretan elkarrisketatu gaitzela, Askatzaile haundiena den Jesukristoren ondoan.●

ANAIA